




Erantzunak: 2.-Hurrengo zenbakia 8 da. 3.-A




### 3. Dominoa.

Izarok asko atsegin du dominoan jolastea, baina ez daki zein fitxa jarri behar duen. Lagunduko diozu?




## AZOKA



### 'Ondarroa inguruko ipuinak'

Made in Ondarroa. Han-hemenka bildutako 20 ipuin klasiko jaso ditu liburuak, denak ere Ondarroa ingurukoak, Javier Arrietak bildutakoak eta Antxon Uskola da Kaiet Bengoetxeak ilustratuak. Ezagunak batzuk, ez hain ezagunak besteak. Herri sinesmen, tradizio eta ohiturei lotutako kontuak ezagutuko ditu irakurleak. Ipuin bakoitzeko irudi koloretsu eta esanguratsuak ere jaso dira.

Egileak: **Javier Arrieta, Antxon Uskola eta Kaiet Bengoetxea Urkiza.**



### 'Ata Pank eta Ate Punky'

«Ata Pankek eta Ate Punkyk zoologikora joan nahi zuten lehoia molestatzera. Ilusioa egiten zien Animalien Errege omen zen hari oihu eta burla egiteak». Ata Pank eta Ate Punky bi ahate bitxi dira. Lotsagabeak, ahozikinak eta tontorroi xamarrek. Haien gaiztakerie irribarrez jarraituko die irakurle gazteak. Bi ahate bitxi! Bi harribitxi!

Egileak: **Bernardo Atxaga eta Mikel Valverde**  
Argitaletxeak: **Pamiela**



### 'Kokonutt'

Istori honetako protagonistak Doretta du izena, eta argi dauka, egunen batean, famatua izango dela. Pentsatuta dauka bere izan artistikoa: Kokonutt. Duela hilabete batzuk, istorio honetako narratzaileak ume bat topatu zuen metro geltokiko eskaileretan jarrita. Eguzkitako betaurrekoak, musuko turkesa bat eta aurikular katu-belarridun batzuk, kamiseta horia eta zapatila lehoiabar estanpadun arrosak zeramatzan.

Egileak: **Miren Amuriza eta Eider Eibar**  
Argitaletxea: **Elkar**



### 'Ilargiko zaindaria'

A81 androidea naiz eta ilargira eraman nahi zaituztet, abentura zirraragarriak bizitzera. Ilargiko Beta hirian Amaia, Meri, Dorian eta Anghelo neska-mutikoak nirekin bizi dira, eta zeregin garrantzitsu bat daukagu bertan: Lurra espaziotik etor daitezkeen arriskuetatik babestea. Horretarako, Patxi zientzialariaren laguntza ere izango dugu. Zatozte gurekin eta lagun iezaguzue Lurra zaintzen!

Egileak: **Aitor Arana eta Manu Ortega**  
Argitaletxea: **Ibaizabal**